

Martin Ugalde: "Imajinatzeko argitasuna mantentzen dut zorionez"

Amaia Ereñaga

Egin, 1997-10-30: 48.

Andoaingo "delegazio" bat iristeko puntuan zegoen eta, bien bitartean, idazlan bat bukatzen ari zen atzo arratsaldean bere Hondarribiko etxean Martin Ugalde. 76 urte bete duenean –urriaren 11n– bereari eusten dio, lanean jo eta ke, ikusten denez. Historialaritzaren alorra baztertu arren –"ez dut indarririk historia eta literatura egiteko. Historiak lan handia ematen du", aitortu zuen–, luma ez du utzi eta Ereinekin argitaratuko duen "Erretiradako tren" izeneko lana adierazle garbia da.

GALDERA: Zer iruditzen zaizu omenaldia?

ERANTZUNA: Gizon bati egin dakioken gauzarik politena dela iruditzen zait, herria berak egiten duen errekonozimendua delako. Bihotzean ukitu nau. Nobela bat baino hobea da, gainera.

G.: Zure azken liburuaren aurkezpena ere egingo duzu. Gerra Zibileko oroitzapenak jorratzen jarraitzen al duzu bertan?

E.: Liburua aurten ateratzeko asmoa nuen, baina ez oraintxe bertan. Omenaldia dela eta bukatzen saiatu naiz adiskide baten laguntzarekin. Azken bi urteotan idatziriko ipuinak sartu ditut, eta Gerra Zibilean ere ari naiz oraingoan. Buruan dabilzan gauzak dira. Badakizu, adin honetan ez daukat asko egitekorik. Hizketan moteldu naiz, baina, zorionez, ez dut imajinatzeko argia galdu. Imajinatzeko gazte baten argia mantentzen dut.

G.: Laurentzi Odriozola venezuelar kazetaria Andoainera etorriko da hitzaldi bat ematera. Zurekin lan egin zuen kazetari euskalduna al da?

E.: Bidaian jaiotako euskalduna da, gurasoak erbesteratu zituztenean. Oso pozik nago berriro ere ikusteko aukera izango dudalako.

G.: ETBrentzat egin zenituen elkarrizketa interesgarri batzuk ere ikusi ahal izango dira Andoainen. Dokumentu historiko bezala kontsidera daitezkeen elkarrizketa hauek berriro ikustea –Barandiaran, Iratzeder eta Mitxelenaekin egindako solasaldiak, besteak beste– zuregan eragina izango du, ezta? Agian zure kazetari garaiak gogoraziko dizkizu.

E.: Ez dakit efektu egingo ote didaten, bederatzi bat urte pasatu baitira. Ni ez naiz egunkariko kazetaria izan, ez dut egunerokotasuna landu –kirolekin hasi nintzen, baina ezin nuen jasan eta utzi egin nuen–, eta aldizkarietan etab. erreportaiak eta artikuluak idazten nituen. Kazetaritza literaturara hurbiltzeko izan zen baliagarria niretzat.